

## **04/06 IRIZPENA**

Lontxo Oihartzabal jn.  
Juan Carlos Arraibi jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Pilar Ramírez and.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Otxoa jn.  
Raimundo Rubio jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko ekainaren 10eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta Maila Ertaineko Musika eta Dantza ikasketak bateratzen laguntzeko neurriak ezartzen dituen agindu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.  
Idazkari Teknikoa

## **SARRERA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta Maila Ertaineko Musika eta Dantza ikasketak bateratzen laguntzeko neurriak ezartzen dituen agindu proiektua, ahalik eta azkarren eman dezan kasuan kasuko aginduzko txostena.

## **I.- AURREKARIAK:**

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 41. artikulua hezkuntza administrazioak gaitzen ditu araubide orokorreko ikasketak eta Musika eta Dantza Irakaskuntzak bateratzen laguntzeko neurriak har ditzaten, eta neurri hauek ikasketen antolamenduari buruzko koordinazio neurriak izan daitezke, baliokidetzak barne. Ekainaren 26ko 756/1992 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak, neurri horiez gain, curriculum egokitzapenak gauzatzeko aukera eskaintzen du, ikasketa batzuk eta besteak aldi berean egin daitezen errazteko.

Urriaren 27ko 288/1992 Dekretuak -EAEko Musika Irakaskuntzako curriculumak ezartzen duenak-, berau betearazteko 1996ko uztailaren 16ko Aginduak -Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum aukerak arautzen dituenak-, 1997ko urriaren 27ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduak -Musika irakaskuntzak eta araubide orokorreko ikasketak (urriaren 27ko 288/1992 Dekretuan jasotakoa), hain zuzen ere, Musikako Maila Ertaineko lehenengo bi zikloi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkionak bateratzen laguntzeko neurriak garatzen dituenak- baliokidetzaren desberdinak xedatu dituzte musikako ikasleentzat curriculumaren aukeraketan eta egokitzapenen markoan.

Musika eta Dantza irakaskuntzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo batzuen arteko baliokidetzak ezartzen dituen 2001eko urtarrilaren 2ko Aginduari esker, Musika eta Dantza ikasten ari diren ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgai jakin batzuk baliozkotzeko aukera dute.

## **II.- EDUKIA**

Dekretu proiektu honek 6 artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu:

1. artikulua dio Aginduaren helburua dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta Maila Ertaineko Musika eta Dantza ikasketak bateratzen laguntzeko neurriak ezartzea eta EAEko DBHko eta Batxilergoko ikasleei mugatzen die dekretu proiektu honen aplikazio eremua.

2. artikulua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika eta gorputz-hezkuntzako arlo batzuen eta Musika eta Dantzako Maila Ertaineko irakasgaien arteko baliokidetzak ezarri ditu, I., II. eta III. Eranskinetan jasotako korrespondentzien arabera.

3. artikulua DBHko eta Batxilergoko aukerako irakasgaien eta Musika eta Dantzako Maila Ertaineko irakaskuntzen arteko baliokidetzak jaso ditu.

4. artikulua Musika eta Gorputz-hezkuntzako irakasgaietan curriculum egokitzapenak egin daitezkeela dio 3. artikuluan aipatutako baliokidetzarik ez duten ikasleen kasuan.

5. artikulua baliokidetzak edo curriculum egokitzapenak eskatzeko prozedura jaso du.

Xedapen indargabetzaileak 1997ko urriaren 27ko Agindua indargabetzen du.

Azken xedapenetarik lehenak errekurtsioak jartzeko aukera ezarri du eta prozedura eta epeak ere jaso ditu; bigarrenak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskumena ematen dio dekretua garatzeko behar diren xedapenak emateko eta hirugarrenak, dekretua indarrean noiz sartzeko den zehazten du.

## **III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Aurkeztu zaigun araudi honek, alde batetik, 2001eko urtarrilaren 2ko Agindua ezarritakoa jaso du, zeinaren bidez Musika eta Dantza irakaskuntzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo batzuen arteko baliokidetzak ezartzen baitira, eta, bestalde,

EAEko aurreko araudia indargabetzen du, zeinaren bidez aukerako irakasgaiak baliozkotzeko aukera ematen baitzen, baliokidetzen esparruan malgutasun handiagoa eskainiz eta aukera Batxilergora hedatuz.

Positiboa iruditzen zaigu irakaskuntza artistikoetako ikasketak (derrigorrezkoak alegia) malgutu eta bateragarri egitea.

Hala ere, Agindu honetako artikuluei ohar batzuk egingo dizkiegu:

- ✓ **2. artikulua:** artikulua honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako derrigorrezko irakasgaien baliokidetzak jaso ditu eranskinetan ezarritako korrespondentzien arabera eta, literalki jaso du 2001eko urtarrilaren 2ko Aginduak ezarritakoa (derrigorrean bete beharrekoa). Nolanahi ere, ez du aipatzen Batxilergoko Gorputz-hezkuntza irakasgaia Dantzako irakaskuntzekin baliozkotu daitekeenik, arauak ezarritakoarekin koherentea bada ere. Bestalde, **4. artikulua**, argi eta garbi adierazi ez arren, badirudi Batxilergoko Gorputz-hezkuntzako irakasgaiaren curriculum egokitzapenak baimentzen dituela. Batxilergoari dagokionez, Gorputz-hezkuntzako baliokidetzak ahalbidetu eta zein curriculum egokitzapeni buruz diharduen zehaztu beharko litzatekeela uste dugu.
- ✓ **3. artikulua:** *“Musika eta dantzako maila ertaineko irakaskuntzak aukerako irakaskuntzat joko dira ...”* dioenean *“irakaskuntzetako irakasgaiak”* esan nahi duela ulertzen dugu, zeren 2. paragrafoan dioenez, irakasgai batzuk eta besteak baliozkotzen dira. Beraz, hobe litzateke horrela erredaktatzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan, “aukerako irakasgaiak” terminoa nahasgarria izan daiteke, aukerakotzat jo ohi direlako Natur Zientziak, Plastika eta Ikus Hezkuntza eta Musika eta Teknologia, izan ere, ikasleak horietatik bi aukeratzeko, eta gainerakoei aukerakotasunekoak deritze. **“Aukerakotasuneko aukerako irakasgaiak”** direla zehatzenez, 213/1994 Dekretuan azaltzen den bezala.

- ✓ 2. paragrafoari dagokionez, badirudi komeni dela Musika eta Dantzako irakasgai komunak jasotzea, edo bestela zein arauditan jaso diren aipatzea (288/1992 Dekretuko 2b eranskina, non irakasgaiak eta irakas-denbora espezialitateen arabera ezarri baitira Musikaren kasuan, eta Dantzako araua, zeinaren maila ertaineko curriculumak ez baita arautu EAren eremuan), ikastetxeen lana errazteko, berarek baitira eskaerak ebatzi behar dituztenak.
- ✓ Bestalde, **3. artikuluko bigarren paragrafoaren** erredakzioa argitu beharko litzateke, zeren badirudi beti ez dela irakasgaiz irakasgaiko baliokidetzarik ematen, beraz, ez da argi geratzen nola egin beharko litzatekeen **5.4. artikuluko** kalifikazioa.

- ✓ **5.6 artikulua:** paragrafo hau berriro erredaktatzea proposatzen dugu, argiago gera dadin: “Ikaslea DBHko irakasgaietako eskoletatik salbuetsirik geratuko da, baldin eta irakasgai horiek araubide berezira biltzen diren Musika edo Dantza irakaskuntza artistikoetako irakasgaien bidez baliozkotu badira.”
- ✓ **Azken xedapenetatik lehena:** Kulturako sailburua aipatzen da, baina akatsa da, Hezkuntzako sailburuaren eskumena delako.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko ekainaren 14an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz. : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.